

Piratak kontxan

Gai hori proposatu du aurtengo inauterietarako KTEk



Gaur bertan hasiko dira inauteriak Donostian.

Aurten, Kultura eta Turismo Ekintzetxeak (KTE) piraten gaia proposatu du moztortzeko. Beraz, hiriko kaleetan ez da faltako Drake, Bizar Gorri edo Zabarre piraten antzera joango denik.

Aurtengo kartela Igon Ferreira 12 urteko bidebieta-rrak egin du. Lehendabiziko aldiz, kartela aukeratzeko, lehiaketa bat egin da hiriko ikastetxeetako haurren artean. Guztira, 150 haurrek hartu dute parte horretan; tartean Igonen, Bidebieta-Mendiola ikastolakoak. «Kontxako badian pirata bat ageri da. Atzean kutxa bat margotu dut, eta bertatik inauterietako apaingarriak ateratzen dira. Eguna pergamino batean azaltzen da», adierazi digu DBHko 2. mailako ikasleak kartelaz.

Igonen Trintxer Kulturala pintura eskolan landu du kartela. «Oso gogoko dut margotzea. Hargatik, eskolak hartzen ditut», diosku.

Kartelaren truke 50.000 pezeta jasoko ditu gaztetxo horrek: «20.000 pezeta liburutan gastatu behar ditut, eta

gainerakoa jostailutan», adierazi digu pozarren Igonen.

22 konpartsa kalean

Ohi denez, desfilea izango da inauterietako ikuskizun nagusia. Guztira, 22 konpartsa aterako dira. Bi taldek huts egingo dute aurten: Eskola eta Gaztedi. Aldiz, talde berri bat gehitu behar zaio zerrendari: Natalia eta Fermin dantza eskola.

Natalia eta Fermin
dantza eskolako
kideak
Donostiako
inauterietako
desfilean
irtengo dira
lehen aldiz

Salsa lehiaketa ugari irabazi dituen akademia horretako irakasleak eta ikasleak konpartsen desfilean parte hartzera animatu dira. «50 pertsona joango gara, guz-


tiak pirataz jantzita», esan digu Fermin Navascuesek, eskolako irakasleak. Ikustekoa izango da 50 pirata kalejiran gerria astintzen.

Navascues kolonbiarra da, eta hango inauteriek zerikusirik ez dutela hemengoekin dio. «Han tropikoan zaude, bero dago, arropa gutxi daramazu... Ezberdina da, ez hobia eta ezta okerragoa ere; desberdina», diosku Ferminen.

Konpartsako kide horiek, besteak beste, manboa, merengea eta salsa dantza bikainak eskainiko dizkiete desfileari so egongo direnei, eta, beharbada, norbait animatuko da.

Egia tropikala

Inauteri hotsak ez dira bakarrrik Donostiako erdialdean entzungo. Larunbatean, Egia auzoan, bertako Zai-Zoi kordinakundeak antolatuta, Egia Tropikala izeneko inauteri jaia ospatuko da. Arratsaldean, 16:30etan haur jolasak egongo dira. Gauean, berriz, Arranon bapo afaltzeko aukera egongo da, 21:30etan. Sabela ondo bete



EGUNKARIA



Pirata jantzia prest izango dute donostiar askok.

ondoren, Mielotxinen jaitsiera egingo da. Horren ostean, Kopla, dantza eta edari afrosiako artean erreko dute inaute panpina hori.

Gauerdian, Gazteszenen kontzertua antolatu dute Zai-Zoiko kideek. Ttak eta 12 tribu taldeek jardungo dute agertokian. Ttak taldeko lagunak izango dira gaue-

ko izarrak. Batetik, taldeak orain hilabete gutxi batzuk argitaratu zuen bere lehen lana: "Ttak Attak". Bestetik, taldekide batzuk egitarak dira. Beraz, kontzertuan betiko jarraitzaile leialak izango dituzte. Egia Tropikala izeneko jaiak ordu txikiak arte iraungo du, Jareño Kultur etxean.

5 IN
T rn

INTX t K TET N E EZIT SUN
S rr n r n t z , - 3 2 153
N STI

E NI E
T E N
EUSK L G

S n J u n k l , 11 - T l . 3 257 - N STI



L T
N E
N
N STI

Danena • Em Jr n,
Tabezra

• T l . 3 251 7
• N STI
PINTXO ETA BOKATAS

Ono bera
n ut r t u

F r m n C l t n,
T l . 3 225 2
N STI

IZABINAT

GANBARA

T rn -Err t

S n J r n m , 21 - T l . 3 225 75
N STI

ES EZI LIT TE K GIT TEK K,
N E I L E t H T Z K



En Jr n k l , - T l . 3 27 5- N STI

ZUN ELTZ

T E N

rr n , 12
T l . 3 3 27
N STI